

BATASUN NAZIONALAren ERABAKIAK



HAUTESKUNDE SINDIKALEN BALORAZIOA

IDAZKARITZA NAZIONALAREN BALANTZEA

BERREGITURAKETA ETA LAN PLANGINTZA



DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXT 10 140

ALTSASU 1.987-ko APIRILAREN

SARRERA:

Hauteskunde Sindikalen emaitzak baloratzekoan, gure kezkarik handiena zentzurik gabeko triunfalismoak ekiditea da, alderdi kuantitatiboetan gehiegi geratu gabe, zeinak, errealak eta objetiboak direna onartu arren, baldintzaturik baitaude, hala nola, bitarteko batek, lantegiek eta haietan esku hartu duten subjektu aktiboen jarrera, hala zuzenki zentral sindikalena nola zeharka Administrazioarena.

ORDEZKARITASUNA

Hauteskunde emaitzen balorazioa planteiatzean beharrezkoa da kontutan hartzea oinarritzko alderdi bat: norainokoa da delegatu hautatuen ordezkariotasuna? nolakoa da lotura hautesleen kezka laboral, sozial eta politikoak eta hautatuen artean? Erantzun zaileko galderak dira. Ekinbide sindikalei jarraitzen dieten langileen jokabideak kontraesanekoak izan daitezke, baina lanpostu galtzeko bildurrak, borroka frontalen ondorio negatiboak, mesfidantza sindikalak eta indar sozial eta komunikabide gehienek sortarazitako dinamika desmobilizatzaileak eragin negatiboa dute erabateko erantzunen ahalbideetan. Delegatu hautaketa ez da, salbuespenekin, interes handiko gauza, gutxiengo organizatua izanik prozesuan kontsekuenteki benetan parte hartzen duena. Erreformismoa ordezkatzeko duten delegatuak eta langileen arteko barnekidetasuna orokorki patronalak areagotua da. ELA, CCOO eta UGT-ren antzeko zentral sindikalen jokatzeko margena dependiente eta mugatua da Administrazio zein Patronalaren planteiamenduekin kontraesan argian gertatzen direnean. LAB-i dagokionez, lortutako boto kopuruak (erdietsitako ordezkariotasuna baino handiagoa) bere (LAB) oinarritzko jite nazionala erakusten du (HB-ren ingurua), gure dinamika sindikalari emandako zalantza gabeko klase-jiteak indarturik. Ordezkariotasuna eta langileenganako eraginaren arteko identifikapen mota itxia ezarri nahi lukeen planteiamendua erabat faltsu agertuko litzateke. LAB-etik, gure ordezkariotasuna handitzea, geure erakundea garatzea ahalbidetzen duen bulkada garrantzitsu bat bezala ulertzen dugu eta bide batez zenbait ahalbide ematen digu, hala nola, lehenik, erreformismoak ANEM-en kontra har ditzakeen neurriak aurre egiteko horma sendo legez aurkeztea, bigarrenik, lan arlo interesgarri bat zabaltzea, non bere menpe duen, bigarrenik, gure eraginaren handitzea erreala den hedaketa.

Aukera ezberdinek atera ditugun ordezkari berriak ez dagozkio beraien kontzientzia sindikalaren gauzatze praktikoari, alderantziz baino, ordezkari gehiago lortzearen erakundeetatik egindako presioari erantzuten diote. Premisa honen pean, jakina, hauteskundeetako emaitzak baldintzatu dituzten garrantziko enketarikoa izan da zentral sindikal bakoitzak erabilgarri izan dituen liberatuen -aparatu- zenbatekoa eta kalitatea.

Gehigarri distortsionatzailea Administrazioaren eskusartzea izan da. Luzatu gabe, apuntatu egiten dugu, dagoeneko finkaturik diren zentrale sindikalen egoera sendoagotzeko eta berauentzat arrotzak diren berrien agerpena eragozteko pentsatua izan dela arautegia. Euspen ekonomiko zuzenari dagokionez, nahiz eta UGT-ri beronen "Ondasun historikotik" emandako 4.000 milioiok kalte eragin, Hego Euskal Herriari dagokionez ez dira erabatekoak izan. Eragina izan duten laguntza ekonomikoak azken 8 hilabeteotan emandakoak izan dira, UGT, CCOO eta ELA-ren posizioak finkatzeko balio izan dutelarik.

Aipaturiko aspektuekin batera, zaku berean enterpresa txikietako ordezkariak:

- 50 langiletik beherakoak
eta langilego zentsu handikoagoetakoak
- 50-tik gorakoak.

sartzeak faltseatu egiten du bestelako aukeren eragin sindikala, salbuespenak salbuespen batez ere 30tik beherako langiledun enterpresetan aktibitate sindikalik kasik egon ere ez dagonean.

Egindako oharpenok Hauteskundeak beraien lekuan utzi nahi dute. Birfluxua gertatu da L.M.aren barruan, kutsu intsolidario alarmagarria eta burrukatasun maila baxua susmarazten dituelarik. Hala da ezen, ez dago zertan itxaron behar hauteskundeen aurrekoen aldean bestelakoa izango den ez emaitzarik ez ekinbiderik. Ohartarazten duten bakarra, eta ez da makala berau, eragin eremu zehatzen izatea da, hedagarriak zein hestuagorriak direnak, bestalde, egoera azterketaren zuzentasunaren eta, funtzekoena dena, praxis intentsu eta hautakorren arabera.

ALDE POLITIKOAK

Izakera politiko eta sozialezko alde bezala, baieztatuta geratu da L.M.an eragingarriak direnak ez direla, fuintsean, euskal gizartean oro har, direnen bestelakoak. Alderantziz baino, jokabideak, berdintsuak izan gabe ere, oso antzekoak dira, era motelagoan, ez hain irekian azaltzen diren arren.

UGT-k mantendu, egiten du bere mailarik gorena Nafarroan, PSOE-ren paralerroan, txikiagotu egiten du bere presentzia Araban eta Bizkaian (garrantzizkoa izaten segitzen badu ere) eta protagonismoa eta eragina galtzen ditu (17,2%-ko beherakada)

Azken herrialde horretan nabaritu da "Egoera azterketan" PSOE-ri gengozkiolarik egindako oharra, UGT-ren kasura aldagarri zena bera: ez itaxurarik, ez edukirik, ez erarik bere boto-espazioari ematerik ez du lortu, espazio horren denominatzaile komuna espainolitatea defenditzea delarik, euskal egitasmo nazional saihestearen aurka.

Apuntatu egin 1.982.koen aldean oraingo emaitzak negatiboak izan direla.

CCOO-ek zenbatekoko atzerakada jasotzen du Gipuzkoan, mantendu egiten da Araban eta Bizkaian, eta garrantzizko gorakada jotzen du Nafarroan. Hala ere bere espazio sindikala galduz dator eta astiro egiten badu L.M.-aren baitan 1.978.erarte eragin handiagoa gorde duena delako da. Beraren politika sindikala barruan ari diren lerroen arteko borrorak eraginda dator. (PCE, PC, EE, LKI, IU), benetan esan daitekelarik sindikatuaren homogenitatea (trinkotasuna), izan ere, ez dela. Planteaketen anbiguotasunak (bikoizkeria), gai garrantzitsuei dagokielarik beti halako erdibide batean, hala nola, nazio arazoa, Industri Bermoldaketa, Hitzarmen soziala, e.a., aintzinako nagusitasun egoeratik urrunarazten du.

ELA hauteskunderen arloan arrasatu egiten duela Vascongadas-etan esan daiteke. Nafarroan duen eragin maila herrialdean izan dezakeen kobertura politikoari dagokiokeena baino askoz ere altuagoa da. Azken urteotan erabili duen kanpaina eta ekinbide sindikalari hurrengo puntuok eusten diote:

* SINDIKATO NAZIONALA

*EZ POLITIKOA (APOLITIKOA)

*LANGILE KLASEAREN DEFENDATZAILEA

*FEDERAKUNDEA EUSKARRIA DUEN ERAKUNDE INDARTSUA DU, ORGANIGRAMA

IA ENPRESARIALAREKIN SINDIKALISMO USTEZ PRAGMATIKOA ETA ERAGINKORRA SALTZEN DU.

Partidu politikoekiko independentea delako kanpoirudiarekin, estrukturalki -(kidegoz, "Administrazio Autonomoaren" euspena)- EAJ-ren menpekoa da. Hauteskundeetako emaitzen giltzarria daukan aparailuaren handian datza: hauteskundeetarako 150-tik gora liberatu perfektuki eratuta, Hego Euskadiko azken enterpresario heldu direnak, erabili ditu.

Zertzelada oharrok heuren erlatibotasun osoan hartu behar dira. Erreformismoak ez du bere berea den alternatibarik, Ugazabagoak mugarritutako arloan diharadu eta beronek diseinaturiko irtenbideetan abiatzen da, ekidin ezinik. Zalantzarik gabe, atal honetako azpimarragarriena da hauteskundeotan euskal naziotasunak jokatzen duen eragile nagusiaren zeregina. Kasu honetan ere, errealtate nazionala ulertzera jotzen duen sektoreak gehiengoa osotzen du.

LAB ETA HAUTESKUNDEAK

Gure ikuspuntutik begiratuta, kanpaina zuzen planifikatu da, plano teorikoan zein L.M.ari igorri beharreko mezuarenean:

*SINDIKALGINTZA BEREZIA, BENETAKO OPOSIZIOKOA.

*GIZARTE ALDAKUNTZA EGITASMOARI (K.A.S.) LOTUTA.

*HAUTESKUNDE KANPAINA KLASIKOAREN PAREAN ALDE NABARMEN ETA GUZTI.

H.B.kiko LOTURA DAGOKION HORREXETAN UTZITA.

Gure definizio sozio-politiko argiro, praktikan frogatuz ez dela hedapenerako eta finkapenerako oztopoa, alderantziz baino, egungo fase honetan. Aurretiz burututako lana erabakikorra izan da. Zenbait aspektu, hala nola H.B.rekin elkarlana ez dira uste izan bezain eraginkorrak izan. Hala ere, elkarlanerako joera erabatekoa izan dela azpimarratu behar. Arazo gaindiezinak, esate baterako, H.B.ren egitura eratuaren eta inplantazioa ez behar bezain eraginkorrak, emaitzak guratakoak izatea eragotzi du. Beharbada, plangintza (dagokigun ardura) aurretikoz gauzatu balitz, emaitzak betegarriak izan ziratekeen.

Hutsei dagokienean, aipimarratu faktore propagandistikoetarako bideratutako medioen larregizkoa, eskura izan ditugunen aldean, giza faktoreari zuzendutakoenen kaltetan: liberatuak. Huts egite hau are ulertezinagoa da alde aurretik egon da eta zehaztuta esku hartzeko erabili beharreko hildoa. Kasu honetan, kanpaina klasikoen inertziak gainezka egin dio ateka elektoraren berezitasunari egoki izan zitzaiokeen eritmoa gainezarri beharrari.

Eskuharmen sindikalerako barrutiak eta gure egitura eratuaren ezaugarriek Herrialdeen bakarkako plantaeamenduetarako joera aregotu egiten dutela egia bada ere, halaber, koordinazio nazionala, N.O.ri dagokion ardura berau, behar bezalakoa baino txikiagoa izan dela onartu behar dugu. 1.982.koaren aldean egungo sustraipena indarragotzea herrialde guztietan gertatu da. Garrantzizkoa da ohartaraztea gorakadak bestelako mailetan izan arren, aurrerago ere egon izan garen "sektoreetan" finkoagotu egin gaituela, beste berrietara ere irekiz.

ZENBAIT ONDORIO

* Egun, bada halako espazio sindikala, oso zehaztua eta hedagarria, hartzea lortu duena L.A.B.-ek bere baitan klase eta nazio arazoak bilduko dituen sindikatua- ren garapenerako benetako aukeretan gauzatzen da espazio hori.

* Arazo sozio-laboreetan bat egitera jotzen duten bereizgarriak krisi ekonomi- koa, lan-arautegia, lan eren eta sistemetan aldaketak, kuadroen profesionalizaziora bultzatzen duen jarrera militante etengabea eta ia espezializatua determinatzen dute. Sindikalgintzaren arloan, bitartekoak, funtsean gizatiarrak, alde klabea bilakatzen dira. Eraginaren handiagotzea/bitartekoak binomikoak osatzen dute, elkar baldintzatuz.

* L.M.an nazio arazoa indartsuki sentitzen da. Bikoizkeriarik gabe euskal "hecho" nazionala indartu dukeen politika sindikalaren bidez gure presentzia sindika- la handiagotzeko bideak irekitzen dira.



ORDEZKARITZA NAZIONALAREN BALANTZEA

Hauteskunde sindikaletan izandako emaitza onek ezin dira erakundearen osotasunari sarritan aurkeztu dizkiogun arazoak izaten segitzen duen hein handian Ordezkaritza Nazionalaren estalkia bilakatu; beraz, erru itzela litzateke, hauteskundeak termometro-tzat hartuta, adabakia jostea nahiz begietan bendak ipintzea sindikatoaren motorra izatea erdiesten ez duen Ordezkaritza Nazionalak isurtzen dituen kontraesanen bila-kaera argiro asegabekorraren aurrean; blokearen zuzendaritzan nortasun espezifikoarekin autonomia eta iharduera eremu zehaztu eta guzti, esku hartu nahi duen erakundearentza-ko funtsezko arazoa berau.

O.N. ihardunen eta funtzionamenduaren gerakada honek dimentsio handiagokoa da kontuan hartuz gero, B.N.ez B.N. egituraren multzo osoari akatsen eta ezinen zerrenda aurkeztuz izan diogula behin eta berriro, errepikakorrak izan arren, eta ez direla behar bezala neurtuak eta aztertuak, soluziobide eginkorren bila. Zentzu honexetan, kontzientean gara benetako irtenbidearen bilaketan jokatu dugun freno (galga) paperari buruz, eta beronen ondorioz hartu dugun erantzunkizunean, ez bait dugu kontraesanen sustraia lekutu eta ez bait dugu koiunturalki baino funtzionatu duten irtenbideak besterik eman; era berean, ulertu egiten dugu, baita, Hauteskunde ostea dela, erantzukizun eta gogoeta berriekin, bilakaldi logikoetan zehar, etorkizun trinkoaren perspektiba sorraraziko duen SOLUZIOBIDE baterako bideari ekiten has gaitezen unerik egokiena.

Murgilduta gauden prozesu politikoan oinarrituta ilusioz eta homogenitatez esku hartu eta lan egin duen O.N. izango duten egituren finkoagotzera BEHARTZEN duten maila kuantitatiboetan eta sektorialetan hedatzean erakundea beharrezkoagoa da egoera hau beroren osotasunean hartzea.

Esan nahi bait da, barne kontraesanak, homogenitate eza eta O.N.ren erabilgarritasun eza erabatekoa erabaki beharko direla oraingo B.N.ean.

NON DATZATEN ORDEZKARITZA NAZIONALAREN FUNTZIONAMENDU ZUZENA OZTOPATZEN DUTEN KONTRAESANAK.

Behin betirako soluziobideen bilaketan, atzeraezina da urteetan zehar B.N.ean gainbizi diren kontraesanen benetako radiografi REALA burutu beharko da, kontraesanak ondoriotzat eraginkortasunez eta operatibitatez gabeko dinamika sorrarazten bait dute.

a).- Jite ideologiko-politikoaren kontraesanak.

Sindikatu barrura aldatzeak berari eragin ziezaiokeen kalteak zela eta, B.N.-ren barruan ziren alde ideologikoak, azken urteetan irribiaten joan direnak heurak, konjelatu egin izan direla esatea zintzo jokatzeari delakoan gaude. Une honetan, kontraesan ideologikoaren giltz-osagarriak, (Zuzendaritza politikoaren kontzeptzioa; militantzia bikoitza zertzea, erakunde independentzia; H.B.ekin harremanak) K.A.S. ponentziaren interpretazio ezberdinetatik sortuak eta ekinbide kutsatu eta kontrajarrien eraginez bilakaraziak direnak, bloketik rigorositatez aurpegiatuak izaten ari dira, ape laburrean erabateko soluziobideea, K.A.S. ponentziaren irakurkera beharra eta homogeen oinarrituta, itxaroten da.

Sindikatuaren barne funtzionamentu eta lanaren dinamikari eragiten dieten kontraesanoi lotuta, bloketik aurre neurritz eman gabeko auziekiko (programa sozio-ekonomikoa, Alternatiba esaugarritzea...) funtsezko alde ideologikoak egiaztatu ditugu.

B.N.eko kideen aldeko diferentziok ideologi arloan, errezelu akusazio eta enfrentamenduen "iturria" izan dira eta, horrez gainera, HIPOTEKATUZ joan dira, nulitate ia osorarte, organu horren estabaida politikorako gaitasuna.

b).- Eskuarmen sindikalarekiko" kontraesanak.

L.M.aren barruan LAB egiten duen eskuarmen sindikal moietaren inguruko bestelakotasunak argiro azaldu izan dira B.N.ean eta O.N.ean, "Ade facto" jarraipena izan dutelarik auzi zehatz edota sektorialetan (FABRELEC, NERVACERO, TUBACEX...).

Nahiz eta 85/5/25ean Lesakan egindako B.N.ean zehaztuak eta baieztatuak izan (ziren) eskuarmen hildoak, tesis kontrajarrien iraupena eta hedapena B.N.k aurre egiten eta moztu jakin ez duen errealtatea izan dira, Sindikatu barruan muturreko tentsioak eta ondorio traumagarriak eragin zitzaizkeen espirala askatzearen bildur izan ginen eta.

Eskuharmen hildoei buruzko desadostasunek jarraipena izan zuten kooperatibak -SAL delako gaia buruz Durangon bildu zen B.N.ean berriro ere "mamartu egiten zirelarik, eztabaidaren azpian, LAB zer izan behar ote den L.M.aren barruan auziari buruzko bestelako eritziak.

Guzti honek, eskuharmen hildoa bereganatu gabe segitzen duten nukleoak bai B.N.ean eta bai bestelako egituretan, eta azpiko giroa sortarazi ditu; argi dagoenez, esandakoak eragina du LABen egituratik egin beharreko eskuharmen sindikalaren beharrezko homogenitate kontrolean.

c).-Ezintasunak funtzionamendu eratuan.

Barruan istiludun, irekiak zein "ezkutuak", giroa duen taldean Ordezkaritza Nazionalak, normala da LAB goi erakunde bezala hartu behara dituen zereginak eta betebeharrei dagokienean egoera gero eta kalteagotuagoa izatea. Deterioro hori areagotu egin du B.N.eko kideen artean sortu den norberaren herrialdean lan egiteko joerak, ardura nazionala eskatzen duten gaiak "noraezean" joan daitezen utzita. Esan nahi bait da, B.N.ean eskuharmena testimoniala bilakatuz etorri da, LAB osoaren-tzako "lastrea" eta arazo zein ezintasun iturri bihurtu arte; horrexegatik, bada, hauteskundeetako emaitza arrakastatsuak ezin zaizkio B.N.ri leporatu, (B.N.aren papera irrelebantea), herrialde bakoitzean kudeatu eta garatutako ekintza espezifikoari baino.

Errepaso orokorra eta sakontasun sakonetan sartu gabe, errez egiazten dira B.N. "honek" sindikatuaren funtzionamenduan eragiten dituen ondorioak:

* Propaganda: "Iraultzen" aldizkariak LABek fabriketan behar duen propaganda aldizkaria izan barik segitzen du, ez delarik aurreko egoerakiko inolako aurrerakada nabarmenik eman.

* Diruzaintza: Anarkiak distziplina ezak eta kontrol ezak konstante funtsean ALDATUGA-BEAK izaten segitzen dute, aurrekusten den egoera ekonomiko larriaren aurrean beronek dakarkeen guztiarekin.

* Hezkuntza: Noiz behinkako ahaleginak egin arren, LABeko kuadroen hezkuntz-finkapenerako programa zabala garatzeko gaitasunezak berean dirau.

* Eskuharmen Erribindikatioa: Funtzionamendu metodiko eta zuzenaz ihardun duen halako etapa baten ondoren, B.N.eko barne arazoen gainditua ikusi du bere burua eta, arazoen artean, sindikatuaren eskuharmenetik ondorioztatzen diren beharrek gaiandituta.

* Prentsa: Ez du ezertan ere aurreratatu, hala izanik LAB (aurrerapenak aurrerapen) bere eritziez eta usteaz "mailukatzen ez duen" sindikatua, komunikabideek ditugularik gogoan hau esatean.

....

Guzti honi hurrengoak gehientzen bedizkiogu, hots, barne eztabaidaren proiektzio eza, gai sozioekonomikoei erantzun eza, blokeari egindako ekarpen teoriko-praktiko, distziplina eza eta zereginen lehentasuna...B.N.ren funtzionamenduari eriztea beherehalakoa da.

ONDORIOA

Balantzeak irakurkera autokritikoa du, bada I.N. oraingo deskonposaketa egoera honetara ekarri duten osagarri eragileenak, jarreran eta funtzionamenduan, hortxe zentratzen direalarik; sindikatukidegoak, guk uste, garrantzizko erantzukizuna bereganatu beharko du, HOMOGENEOTASUNA DEDIKAZIO EXKLUSIBOA eta ZEREGIN ZEHATZean oinarrituta, LAB bilakaerarako giro erabakitzailea izango den O.N. aukeratzeko.

Argi geratzen da, bizi izan duguna bizi izan ondoren, "konfidantza iraultzailea" aldarrikatuz halako konpromesu lainotsuak eta ikutu formalak burututa, egungo egoera jarraitzea SEKULAKO errua litzatekela, sindikatua agonia geldora eta ondorengo degrapenera eramango lukeen errua hain zuzen ere; horrexegatik, B.N. honetan estaldurarik gabe "haitzurtu" gura izan dugu I.N.aren funtzionamendu "desastrosoa" horren sustraletan.

Zentzu honetan, ustea dugu, lehen fasean, eta B.N.aren bidez, I.N.aren jitea eta osagarriek nolakotasunari egingo genieke aurre, Berregituraketa eta lan plangintzarekin aurreratzeko, sindikatuko organu guztiei eragingo liekena berau, erakundeak inkontsekuenteki barruan lagatuta dituen gaiak aztertzen joateko ondoren (Estatutoak, ordezkatasuna...).

Hedapenerako eta finkapenerako leku zabala dagoela frogatzen duten hauteskundeetako emaitzekin LABek hartzen duen erantzukizuna, oinarrizko motortzat I.N. izango duen erataldi berrian gauzatu beharko da.

Ustea dugu, halaber, burutzeke ditugun eztabaideen menpe eta egitura berri honen trinkotze prozesu luzearen sindikatuak heldutasunez eta eraginkortasunez egin liezaiokela aurre Biltzarre berriaren desafioari; hala ere behin lanerako espiritu berria gauzatzearen bidez egungo "azalpena" eta kontraesan maila gaindituta gera daiteke hori.



BERREGITURAKETA ETA LAN PLANGINTZA

I.N.aren balantzeak eta hauteskundeetako emaitzei buruzko gogoetak, Sindikatuaren Egiturarai begira, planteamendu berritzaile eta hertsia egitera behartzen dute. Nabardura berezia hartzen du I.N. Berregokitu egin beharko da, ente hori funtzioetan zein erantzukizunetan Sindikatuaren zuzpertzzailea eta kidego osoarentzako KONFIDANTZA eta SINESGARRITASUN iturria izan dadin.

Abiapuntutzat hartuta azken hori, oraingo I.N.ek B.N.aren eskuetan uzten ditu karguak (ardurak) eta, era berean, gainerako egiturek ere (Eskualdeko Ordezkaritzek, Herrialdeko Ordezkaritzek) berregokipen prozesu bera jasan behar dutelakoan gaude, berkonposaketan bidez LABentzako zirt edo zartekoa izango den etapari hasiera emanez honetara.

B.N. osterako proposatzen ditugun "aldaketak" eta emanez eskema hurrengoak lirerateke:

SARRERA:

LAB bidea egiten ari den fase berriak argitasun argiz erakusten du oraingo eraketa mailak berrindartzeko ahaleginak gauzatzen hasteko premia. Langile Mogimendua bizitzen ari den une aberasgarriaren osagarriek eta hauteskunde sindikaletako emaitzek ez dute balantzarako lekurik uzten.

Erakundea berrindartzeko egitasmoari aurre egiten diogunean, ez dugu egungo eratze-oinarrien aldatzeko asmotik egiten, alderantziz baino. Egungo eraketa eredu bultzatu zuten hastapenek indarrean dira:

- * K.A.S. kide osoak.
- * E.N.A.M.aren zerbitzupeko erakundea.
- * Berea duen gizarte-esparru sozialaren baiezpena.
- * Kapital Handiak krisisatiko irteeratzat ganezarritako ereduari aurrez aurre aurka egiten dioten eskuharmen ihardueradun erakundea.
- * Gizarte eta politika gaietan langileek erabakiak hartzearen bultzatzaileak.

Eraketa hastapen orokorretan oinarrituta K.A.S.eko geinerako erakundeekin amankomunean zuzendaritza politikoan ditugun ardurak geureganatu ditugu eta geure burua jite sozio-politikoaren arabera egituratu dugu, beti ere L.A.B. eduki espezifikoa zertzen duten lehen aipaturiko ezaugarrien arabera:

1º.- Zatikeriari eta joerakeriari lekurik utziko ez dien homogeneotasuna.

2º.- Eraketa dagokionean, kuadratura eta masena, armonikoki elkarlotuta eta ardura mailak baldintzatuak.

3º.- lehentasuna tokiko eraketa-egiturari, hala eratze eta bultzatze nola erabakitzeko gaitasun mailari dagokienean.

Bilakaera dinamiko guztietan bezala, L.A.B.ek eginiko bidean zehar ere erantzuna eman beharreko kontraesan eta alde berritzaileak agertu izan dira. Lehenen artean, I.N.k burututako balantzeak deskribatuta geratu direnak, ezadostasun garrantzitsuak egertu izan dira B.N.aren barruan, beronek funtzioak bilakarazten eragotziz. Bigarren artean gure ordezkariak jo duen gorakada dugu, ekintza sindikal zehatza eskatuko diguten sektoreetan sartu garelarik.

ORDEZKARITZA NAZIONALA

LABen barruan I.N.ari garatzea dagozkion zereginak funtsezko oinarria dira. I.N.ari erakunde osoarentzako zuzpertzzaile osoa bilakatzea dagokio, ekarpen eta koordinaketa politikoaren mailetan eskuhartuz, kidegoarentzako hezkuntza egitarauak abiaraziz, instituzioekiko harremanetan sartuta egonez, dinamika ekartzaile eta sortzailearen barruan arloetako eskuharmenean eraginez eta kontrola burutuz, eskuhartzeta eta eztabaida altuei bidea emanez eta, azken batean, B.N.k gai politiko eta sindikalei buruz ebatzitakoak gauzatuz.

Aipatu problematika zuzentzeko I.N.aren funtsezko giltzarriak hurrengoak dira:

- * Organu honek osakideen arteko ahalik eta homogenitate gradurik handiena izango du, bere zereginak era eraginkorrez bete ahal izan ditzan. Ihardun militantea LABen barruan garatzea, sindikatuaren eskuharmen politiko-sindikalerako hildoen

inguruko adostasuna ideategi politikoa, eta K.A.S.ek erabakitako harreman mota eta maila norbereganatzea dira homogenitate hori bereizten duten ezaugarriak.

* LEHENTASUNEZ eta ia EXKLUSIBOKI organukideek I.N.ri ekitea (zenbait beroni baino beste ezeri ez), burutu beharreko zereginetan indarrez eragiten duten zeregini "aunitzak" lagatuz, LABen komunikazio tresna eta informazio bidea baino besterik ez den I.N. honekin behin betirako apurtuta, behar dugun organu sortzaile, ekartzailerle eta zuzpertzaileraren bila aurrera jo dezagun.

I.N.AREN LAN-BARRUTAİK-OSAKIDE ZENBAKIA

Ekinbide errebindikatiboa: Tokiko Egiturak sektorialaren gainean dela (gero garatuko dugunez) eta besteko produkzio-sektoreetan sindikatuak izan duen hazkundera abiapuntu-tzat hartuta, behar beharrezkoa Ekinbide erribindikatiborako talde sendoz eta sektore-kako ardura zehatzen arabera sailkatuaz HORNITZEA I.N.: Siderometalurgia, Administra-zioa, Banca, Irakaskuntza, Kooperatibak, Nazio mailako auziak...

Zentzu horrextan proposatzen dugu, guttienez, BOST pertsona EGINBIDE ERIBINDI-KATIBORAKO egotea, herrialde guztietakoak izan beharko diralarik boston artean.

Talde honen erakuntza, zeregin sektorialen azpibanaketa, harreman instituzionaleko harremanetako ardurak zehaztea, Prentsa aparailuarekiko koordinaketa eta mekanika.. etorkizuneko I.N.ean azkar garatu beharreko aldeak dira (kontuan izanik E.R.ko kideen destolestaketa ezinezkoa dela eta beraien egungo guntzionamenduaren inpassa) inertzia dela eta finkatzen ari diren funtzionamendu "autonomo sektorialak" ekiditeko.

HEZKUNTZA: Metodologiaz eta doitasunez aurre eman beharreko desafioa da kuadroentzako hezkuntza egitarau zabala ezartzea. Barruti honetarako, eta bete beharreko zereginak eskatzen dituen ahaleginekin jakituan garelarik, beharrezkotzat jotzen dugu I.N.k kide BI honetarako egotea.

Prentsa-Barne Erakuntza- "Koordinatzailea": LAB-en "Idazkari Orokorra" delakoa ezartzetik urrun, beharrezko ikusten dugu O.N.-ko kideren bat Prentsaarekiko harremanetarako arduraduna (ezinbestekoa euskara ezagutzea) eta O.N.-aren osagarri "koipeztailerle" izan dadin.

Sindikatuakide honek, ordezkari eta arduradun zereginak hartuko lituzke LAB-i dagozkion gai orokorretan Instituzioen arloan (Ondare sindikala, Kontseilu ekonomiko soziala...)

Propaganda: Begibistakoa da sindikatukide honen zeregina nagusia halako "iraultzen" berria, aldizkakoa eta eraginkorra, sindikatuaren agerkaria bezala, regularizatzea datekeela, eta, era berean, propagandarako taldea artikulatu beharko du (Herrialde-eskualde mailetan) oraingo inertziarekin -"propaganda arduraduna" ez da bestetzat jotzen "propaganda banatzaile" -tzat baino- apurtzeko.

Diruzaintza: Sindikatuaren ekonomi-hedadura mailek irteera/sarreren kontrol zehatza eskatzen dute, egokiak diren etorkizuneko plangintzak eta aurrekontuak erreferentzi-oinarri sendoen gainean ezartzeko bidea emanez.

Nazioartekoak: Gure prozesuan nazioartekoak hartzen ari diren garrantziak berauei eskainitako area zehatz gauzatzea eskatzen du, I.N. bertan kontuan izan^o dena; borrokabide orokorrean zehar burututakoa errentagarria bilakaraz dezan, beste langile-erakunde batzurekin elkartruketarako bidea zabalduz.

Izan ere izango dira, aipatutakoaz gain bestelako barrutiak ere, bai a berauekiko zereginak I.N. taldekideen artean banatuz gero erabateko dedikaziorik eskatzen ez dutenak, hala nola; koordinazio politikoa, Erakuntza,...; esan nahi bat da, zereginok simultaneatu egin beharko liriateke, B.N.tik aterako den I.N.-aren barrurako zehaztu direnekin.

O.N.-erako Egitasmo honen arabera, bere kideak 11 izango liriateke zenbaki egokia, etorkizuneko bertako partaideek zehaztu beharreko dinamika eta guzti.

Idazkaritza Nazionalaren hautaera:

Egun, Herrialdeetako Idazkaritzak aukeratutako 4 kideek eta B.N. hautatuko beste 6k osatzen dute I.N.

Egungo era hau honako modura aldatuko litzateke:

* B.N. 11 kide hautatuko ditu. Herrialdeetako konferentziek (zein bere aldetik

IX eta zein bere eskualdeko kideaak), eta B.N.-ko bertako kideek hautagaiak proposatuko dituzte, botoen bidezko hautaketarako. B.N.-ko kide guztiek hamaikana, gehienez jota, kideri emango diote botua, hautatuak boturik gehien lortzen dituztenak izango direlarik.

* I.N.-eko kide guztiori hautaketa B.N.-k egitea, sindikatuaren goi organismoari buruz aipatu ditugun giltzarri bietan oinarritzen da. I.N. moeta honek eten egiten du "herrialdeko koordinatzaileak" irudiarekin (duten informazio bide izatearen funtzio ia eskusiboarekin ezkontezina delarik aurkezten den I.N. moetaekin), beregamtiz I.N. kide hautatuak Herrialdeko bilera guztietara joateko derrigorra (Idazkaritzen iraunkorrak, ahots eta guzti, baino boturik gabe) I.N.-rekin informazio "zubiak" heda ditzaten.

HERRIALDE IDAZKARITZAK-ESKUALDE IDAZKARITZAK

Ezinbestekotzat jotzen dugun bermoldaketa abiapuntutzat hartuta, sindikatu goi organoan jasoriko espiritu berean, herrialdeetako bilkuretan bil daitezen, luzeen jota B.N.-aren ondoko hiru astebeteen barruan, herrialdeetako iraunkorrak aukeratuak izan daitezen.

Herrialde Billerok baino lehen eta eskualdeetako batzarreen bidez, berregituratu egingo dira Eskualde Idazkaritzak, erakunde osoa zuzpertz behar duen prozesuaren barruan, organo guztiei bulkada berria eta indartsua emango diogularik denok. "Berregituraketa orokorraren" premia hau B.N. gertatzeko bileretan fokatua izan beharko da.

Herrialdeko Iraunkorreko kide kopurua "malgua" izango da; Ekinbide Erribindikati-boak eskatzen dituen garapen mailetara egokitua, toki-egitura eta sektoreetako era zuzenean elkarlotuak izan daitezen helburu.

TOKIA-SEKTOREA ELKARRERAGINA

Sektoreetako ihardura eta toki-egituraren arteko elkarreginari eta funtzionamenduari buruzko argibide bezala edo, erakuntza-eskema proposatzen dugu, LAB-en premia eta ezarrera mailaren arabera beste sektore hastapenetan oinarrituta horretarako:

* Toki egiturak segitzen du izaten erabaki politikoak hartzeko bide bakarra, gure eskuharmen sindikala garatzeko bide gurena izanik.

* LAB-eko kideen arteko koordinazioa eskuharmen sindikal eraginkorrerako beharrezkoa den azpisektoreetan egingo da. Beraren egitura tokikoaren menpekota izango da. Beraren gorakuntza herrialdeetako mailetan zehaztuko da, nazio mailako koordinazioa, beharrezkoa izanez gero, kasurako izendatuko den erribindikapen barruti horretako I.N.eko kide baten menpean izango delarik.

Herrialde mailako sektore arduraduna delakoa Herrialde Idazkaritzako kidea izango da, izatekotan ere, dagokion sektorea koordinatzeko ardurarekin, Ekinbide Erribindikati-borako aparailuaren barruan.

OHARRA:

Herrialde Iraunkorrek izango duten konposaketa malguk ez dute organuok B.N.-aren barruan duten ordezkariaren moldapenik ekarriko, I.N.-ren alderantzizkoan, azken hau 5 kidez gehitua izango denez, B.N.-aren barruan ordezkari-tza handiagoa izango bait du.

Egiteke geratzen da, beste hainbeste gauza bezala, egungo estatutoen eta ordezkari-bideen berregokipena, sindikatuaren egungo bilakaerari mesedegarriak gerta dakizkion. Gai hau, eztabaida eta erabaki organo egokiekin, hurrengo B.N. jorratu beharko du.

HAUTESKUNDE SINDIKALEN BALORAZIOA

I.N.-ak sarrera antzekoa egiten du, eztabaidarako planteiaturiko balorazio orokorraren txostenaren edukia laburbilduz. Ondoren, Herrialde Koordinatzaileek Herrialde Bilkuretan sortutako ekarpenen berri ematen dute, egiaztatzen ez delarik txostenarekiko jarrera zalantzagarririk, eta bai ordea, zenbait zehazketa positibo eta argigarri.

Jarraian; B.N.-ko Mahaiak Herrialde Koordinatzaileei zera eskatzen diete, Herrialde Idazkaritzek hauteskundeei buruz egindako balorazioez Bilkuretan hartutako ebazpenen berri emateko. Informazio hauetan, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa, Bizkaiak egindako balorazioaren atal bi, zeinek B.N.-aren aurreko erabakiak zalantzan ezartzen bait dituzte, negatibo eta bereganazintzat irizten bat datozela ikusten da. Delako atalak hauek dira:

"Eta hirugarren elementua, Hauteskunde Sindikaletako kanpainaren garapenean Herri Batasunarekin edukiriko harreman deskoordinatuek eta diferentziek osatzen dute, berauei buruz maila nazionalan hartutako erabakiagatik".

"Premiazko ikusten da definizio teorikoak eta garatzen dugun praktikaren artean dagoen desegokitzapena gainditzea".

Bestalde, Bizkaiko Koordinakundeak zera jakinarazten du, Herrialde Idazkaritzak aurkezturiko balorazioa oso eztabaidatua izan zela Bilkuran, langintza alternatibo eta guzti, botazio baten ondoren onartuz, zeinek, herrialdeko bozeramalearen arabera, ondoko emaitza izan bait zuen:

BAI - 29 Boto EZ - 11 Boto ABSTENTZIOAK - 6 Boto

Aurkaritza informatibodun lehenengo zera honen ondoren eztabaida irekia hasten da. Bertan zehar ez da kuestionatzen I.N.-ak aurkezturiko balorazio orokorra, eztabaida bera ingurura ekartzen duen elementu eztabaidagarri Bizkaiko Idazkaritzak garaturiko balorazioaren edukia gertatuz.

Debateak, arlo ezberdin bi du:

a) Besteritziak Bizkaiko hauteskunde sindikalen emaitzen gainean, buru-muturretan dauden balorazioekin, interbentzio anitzen bidez, zeinak, B.N.-ko partaideek zehazki ezagutzen ez bait zituzten, eta era berean, Bizkaiko Bilkuran egin zen botazioarekiko ere alkarren aurkako jarrerak izan dira. Bilkurako botazioaren kontura sortzen den polemika oso adierazgarri gertatzen da herrialde horretako sindikatua jasaten ari den asaldapen eta elkarkontrako egoera ikusteko.

b) Bizkaiatik B.N.-ean ebazpenekin alebosiaz topoarazitako eduki eta terminologiaren bersortze eta berrekinak; gertaera honek berriro adierazten du zenbait militante kualifikatu-ren asmobide desestabilizatzaile eta karruskatzaile argia Sindikatuarekiko. Bide honetan, Sindikatu igarotzen ari den azken faseaz zenbait hausnarketa egiten da, LAB-en kontraesanak Blokearen kontraesanen barruan kokatuz, eta bereziki partidua eta sindikatuaren arteko harremanetan. Eztabaidan zehar egindako interpelazio ezberdinei ez zaie Bizkaiatik argudiobide sendo eta argiz erantzuten.

Ebazpenak.-

Ahobetzen da I.N.-ak egindako txostena, argi eta garbi utziz, eztabaidagai izan diren Bizkaiko balorazioaren atal horiek printzipioz ARBUIAGARRIAK DIRENA aurreragoko erabakiak hausteagatik, sindikatuarentzat jokabide desestabilizatzaile argiz eta, era berean, ekin egiten da gerorako gure interbentzio sindikal ildoetako praktika homogeenan aurrera egiteko beharrea.

IDAZKARITZA NAZIONALAREN BALANTZEA.-

I.N.-eko partaide batek sarrera egin aurretik, I.N.-eko pertsona batek Bizkaiko Bilkuran izan zuen jokabide ez zuzena eta autokritikoa argiarazten da Batzarrearen aurrean.

Aipatu pertsonak publikoki planteiaturiko autokritika Bizkaiko Bilkuraren garapen irregular eta traumatikoari dagokio, garapen hortan "I.N.-aren Balantzea" eta "Lan eta Berregituraketa Plangintza" txostenak eztabaidatzea eta zehaztea eragotzi bait zen, sasiplant eiamendu batetan oinarrituz, zeina lan bien inguruan ITUN HIRUPARTEKOA

zegoela esaten zuen Batzarreko pertsona batek egina bait zen. Interbentzio honek, Bilkurara joan ere egin behar ez zuela errekonoziturik, bere dimisioagatik, eztabaida GELDIARAZI eta HIPOTEKATU egiten du, Mahaitik ez argitzean delako "itun" edo "consensus hiruparteko"-rik eza, han zegoen partaideari dagokion oinarritzko erantzukizuna, hain zuzen.

B.N.-ari argi eta garbi dimentsio berria ematean dion argiketa honen ondoren, zeren, Bizkaiko Ordezkariek ezin izan dituzte funtsezko gai hauek eztabaidatu ez zehaztu, I.N.-aren txostenaren eduki azaltzera pasatzen da.

Geru, Herrialde Koordinakundeek, Bizkaia izan ezik, lehengoagaitik, parte hartzen dute Bilkura ezberdinetan izandako erabaki eta ekarpenak jakinaraziz, txostenarekiko identifikazio handia nabariatuz.

Jarraian izan zen eztabaida irekian, partaideen interbentzioen ingura-guneen ildo nagusiak dira:

-Oraingo honetako egoera luzaezina da, begibistakoa dela I.N. homogenea eta ekinkorra, xede honetarako behar diren aldaketa eta ordezketa egokiek. Hausnarketa hau, aldi berean, Hauteskunde Sindikaletako ezarpen aurreratzeak bultzatzen du.

- Kontraesan ideologiko-politiko eta sindikalek beren epizentrua partiduko militanteek LAB-en garaturiko ildoan dute. Ildo ideologiko eta praktikoa hau Bizkaiko herrialdean beheko egiturengandik LAB eta KAS-en errealitatearen eskutatze eta intoxikazio informatiboaren sintoma nabariz osatua izan delarik.

- LAB-en gaurko kontraesanek, I.N.-aren lan filosofian eta homogeneitatean erabateko aldaketa behar ez ezik berregituraketa sakondu egin behar da ere Sindikato osoan, hausketa eginez, LAB interbentzio gaitasunari eta funtzionamenduari dagokienean hauteskunde emaitzak al de batera utziz, inkistatu egin dena.

- Kontraesanen, erakunde barneko susmoen..., etabarren irtenbidea eraginkorra izatekotan KAS txostenaren irakurketa bakarraren bidez izango da, eta baita Blokearen funtzionamendu zuzenean ere, bere sakontze eta erabaki sozio-politiko betebeharrak guztietan.

- LAB-en Biltzarrea B.N.honetatik hasten dugun homogeneitate, kohesio eta erakunde garatze etaparen asteko fasetik abiatu behar da.

Debatearen ondoren, Idazkaritza Nazionalaren txostena botuetara eramaten da, ONARTUA izanik, aldeko 49 botuz eta 3 abstentioz.

LAN ETA BERRIGITURAKETA PLANGINTZA.-

Goiko puntuan eztabaidatu eta onarturiko ebazpenak berrartuz, I.N.-ak "Lan eta Berregituraketa Plangintza" deritzon txostenaren sarrera-aurkezpena egiten du.

Jarraian Herrialdeetako Koordinatzaileek parte hartzen dute, Araba, Gipuzkoa, eta Nafarroako Bilkuren jarrerez baieztatua izanik, Bizkaia ezin izanik bere eritzi konkretua azaldu, goiko puntuan esandakoagatik.

Ondorengo debatean interbentziook I.N.-aren homogeneitatea partiduko elementu gutxienezko bezala, nabarmentzen arai dira, baita sindikatuaren atal guztiak ekinkorrarazteko beharra, eztabaidak eta egitura militanteen parte harmena arintzeko behar bazterrezina ere, eta Sindikatuaren egituraren barruan Ekinbide erreibindikati-boa sendo txertatzearen garrantzia.

Herrialde-Koordinatzaileen kentze teorikoaz (ez praktikoa) argiketak eginez, botuetara eramaten da AHOBATEZ ONARTURIK geratzen dela.

IDAZKARITZA NAZIONAL BERRIAREN HAUTAKETA

B.N.-eko Mahaiak zera azaltzen dio Batzarre osoari, jaso direla I.N. berria osatzeko, hautagaietarako Herrialde Bilkuren proposamenak. Denetara hautagaiak 17 dira, ejekutiba berrira 11 hautatu behar direlarik.

Beste hautagai-proposamenik gabe eta bigarren eta hirugarren txostenetan aipatutako printzipio eta balorazioetatik abiatuz irten I.N.-ak 11 militantez osaturiko zerrenda bat aurkezten du, onetsirik geratzen dena ondoko emaitzak izan dituen botaketa egin ondoren:

Juantzu LATASA	- 48 Boto
Rafa DIEZ	- 48 "
Jose María SASIAIN	- 48 "
Joselu CERECEDA	- 48 "
Peio ELEXPE	- 40 "
Marian VERDES	- 44 "
Patxi ERDOZAIN	- 48 "
Santos INDAKOETXEA	- 48
Javier LANDA	- 46 "
Xabier ELORRIAGA	- 48 "
Eli VILUNBRALES	- 47 "
Patxi GALLEGO	- - 1 "
Miguel CLEMENTE	- 3 "
Patxi GUTIERREZ	- 2 "
Periko TERRONES	- 7 "
Jose Luis MORENO	- 1 "
Martzelino SATRUSTEGI	- 1 "

Honela ba, Idazkaritza Nazionaleko osakide berriak goiko zerrendako lehen 11-ak dira.

SINDIKATUAREN LIBERATU ETA ESTRUKTURA LANETARAKO MILITANTE BI GAIEZTEKO PROPOSAMENA.-

Bilkura Nazional honetan amaitzen den etapan harturiko erantzukizunen arabera, nola baita berauen beteraezintasuna Sindikatuaren aurrera egite homogeen eta erakorrerako barne ere, Batzarrearen hausnarpenerako liberatu eta estruktura lanetarako Sindikatuko militante bi baitezko proposamena aurkezten da (Irten I.N.-ak ahobatez onetsia). Proposamena batuetara eramane, ondoko emaitzez onartzen da:

BAI	45 Boto
EZ	0 "
ABSTENTZIOAK	7 "

Aurreko erabakiari jarraituz sindikatuak ekinkortasunean eta homogeneitasunean aurrera egiteko benetan behar dituen liberatuen gorabeheretan I.N.-ak ejekutiboki parte har dezan proposatzen da. Botuetara jorik, onartua gertatzen da ondoko emaitsez:

BAI	50 Boto
EZ	0 "
ABSTENTZIOAK	2 "

MOBILIZAZIOAK.-

"Birmoldaketen" eta langileen aurkako legeen (LSF-en dekretua) ondoriopean dauden lan arlo zenbaitek duen egoera agatazkatsuz mintzatzen da laburki B.N. Huelga (Lanuzte) Orokorreranzko biderapena LAB-ek ezarri behar du, PSOE eta beronen "eskumutil autonomiko"-en abiabideen aurkako erantzun politikotzat. Beste zehazpenik gabe bateratze mekanismoak proiektatzen dira dagokien sektoreekin hurrengo deialdiatarako ekinbideak zehazten saiatzeko.